



Amara Berriko Superxagu jaietako jai batzordea.  BEÑAT PARRA

Superxagu jaiak: haur, gazte eta helduagoentzat

Uda bukatu da, baina ez Donostiako auzoetako jai herrikoiak. Hain zuzen ere, Amara Berrin, hurrengo astean murgilduko dira Superxagu jaietan, «udako azken jaietan», jai batzordekoek diotenez.

 Beñat Parra Rodriguez

Superxagu maitatua prest dago Amara Berrira itzuli eta, beste behin, auzoa bere egiteko. Hain zuzen ere, astelehenean hasiko dira motorrak berotzen eta auzoa jaietarako prestatzen, eta ostiraletik igandera, jai giroa nagusituko da Amara Berrin.

Jai batzordeko Noa Goikoetxeak eta Ainhoa Aldazurik azaldu dutenez, ekainetik dabilta jaien antolaketan buru-belarri; abuztuko geldialdiarekin, hori bai: «Batez ere, Aste

Nagusi Pirata dela eta, geldialditxo egiten dugu abuztuan, baina ez ditugu auzoko jaiak ahazten, parrandak aprobetxatzen baititugu jai batzordeko fitxaketak egiteko». Hain zuzen ere, fruituak eman ditu fitxaketa merkatu berezi horrek: «Jai batzordean hiru pertsona berri sartu dira, gazteak, eta asko eskertzen dugu, horrela belaunaldi erreleboa bermatzen dugulako. Bestela, betikoak gaude», nabarmendu du Goikoetxeak.

Igandeko egitaraua indartu dute

Abuztuko etenaldia eta fitxaketak eginda, atzerako kontaktan murgilduta egon dira azken asteotan, baina egitarau oparoa ontzea lortu dute. Betiko jarduera arrakastatsuak ez dira faltatuko, noski, baina berrietasun batzuk ere prestatu dituzte: «Saiatu gara igandeko egitaraua indartzen, jaiak behar bezala ixteko. Zeren, askotan gertatzen da larunbatean jende asko dagoela eta igandean jai batzordekoak baino ez», azaldu du Aldazurik. Ildo beretik jo du Goikoetxeak: «Haurrentzako eta gazteontzako jarduera ugari izaten ditugu urtero, baina auzotar helduagoetara heldu nahi dugu baita ere, eta horretan jarri dugu fokua igandeko egitarauan: plaza dantzak, tortilla txapelketa, eta abar».

Idea horri jarraiki, haurrentzako edo gazteentzako jolasak antolatu ordez, jolas inklusiboak antolatu dituzte aurten larunbat eguerdirako, «haur, gazte zein helduak elkarrekin jolastu daitezten, elkar ezagutzeko eta bizikidetzat sustatzeko», Aldazuriren hitzetan.

Berritasunetik harago ere bada zer nabarmendu egitarauan, hala nola, musika eskaintza, batzordeki-deek azaldu dutenez: «Aurten ere Bidean erromeria etorriko da, oso giro ona jartzen baitute urtero auzoan. Bestalde, Mugan taldeko hainbat kide auzokoak dira, eta duela bost urte, taldea sortu zutenean, hemen eman zuten lehenengo kontzertua. Urteotan egindako ibilbidea aitortzeko, bosgarren urteurrenaren bueltan ekarriko ditugu berriz».

Jaiegun arrotzei aurre eginez

Urteroko legez, urriaren 12ko Hispanitatearen Egunak Superxagu jaiekin bat egingo du, eta jaiegun arrotz horri jai herrikoak ospatuz egingo diote aurre, besteak beste, NAN jaurtiketa arrakastatsuekin: «Aurten, gauez egingo dugu, arratsaldean egin ordez. Jarduera errotua da dagoeneko gure jaietan. Ea zenbat NAN galtzen diren!», dio Goikoetxeak, barrez. Apur bat kezkatuta ere badaude, larunbata baita aurten urriaren 12a, eta jaieguna izateaz gain, errugbi partida jendetsu bat jokatu da Anoetan, jai gunearen ondoan: «Espero dugu jai ei gehiegi ez eragitea!».

Antiguako sansebastianetara arte, ez da beste jai herrikoirik ospatuko Donostiako auzoetan, beraz, halako jai ez gozatzeko azken aukera dute donostiarrek hurrengo asteburuan, Amara Berrikoekin eta Martute-nekoekin, Amara Berrikoek dioten moduan, «uda benetan ixteko». ●



URRIAK 7-9

09:00

Horma irudi herrikoia (Amara Berri eta Katalin Erauso ikastetxeetako haurrak).

OSTEGUNA 10

16:00 · Jai gunean

Muntaketa herrikoia.

OSTIRALA 11

16:30 · Olaeta plazan

Haurtxokoa eta Gaztelekua jaietan!

18:15

Horma irudiaren inaugurazioa eta kalejira.

18:45 · Jai gunean

TxupiNazioa.

Urrats
euskaltegia

Ondo pasa Superxagu jaietan!

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia

basmodec

PINTURA · PAPER MARGOTUAK
EGURRA BABESTEO PRODUKTUAK
LURRAK · BINILOAK · DEKORAZIOA
ALFONBRA ETA MOKETAK

Gora Superxagu jaiak!
ZURE PINTURA DENDA

BENTA BERRI Jose Goikoa Z/G - 943 15 55 79
GROS Secundino Esnaola, 19 - 943 28 26 11
AMARA Eustasio Amilibia, 11 - 943 45 67 04
HERNANI Akarregi Poligonoa, Pab.3A - 943 52 16 50



19:00

Danborrada herrikoa.

20:30 · Jai gunean

Afariak.

23:00

Bidean erromeria.

00:30

NAN jaurtiketa.

LARUNBATA 12

11:30 · Armerias plazan

Paella lehiaketa.

12:00 · Armerias plazan

Auzotarrentzako jolas inklusiboak, haur, gazte zein helduentzako.

13:00 · Jai gunean

Bertso saioa.

13:30

Haurren bazkaria.

14:30

Herri bazkaria.

16:00

Bingo musikatua.

16:30 · Armerias plazan

TxikiSorpresa!

17:00

III. Nazioarteko Harri Orri Ar txapelketaren hasiera.

17:30 · Jai gunean

Jaiegun arrotzen aurkako argazkia.

18:00 · Armerias plazan

Haurrentzako txokolate jana.

18:00

Elektrobiuaka elektrotzaranga.

20:30 · Jai gunean

Afariak.

22:30

Kontzertuak: Mugan eta Gordas Pinponeras.

00:00

III. Nazioarteko Harri Orri Ar txapelketako finala.

IGANDEA 13

12:30 · Jai gunean

Plaza dantzak, tortilla txapelketa eta sagardo barrika.

14:00

Parrillada.

16:00

Mus eta partxis lehiaketa.

16:30

Pasahitza eta pasa hitza.

19:00 · Jai gunetik

Superxaguri agurra.

19:30

Desmuntatze herrikoa.

**BIGARREN
BETAURREKOAK DOAN
PROGRESIBOAK
EDO MONOFOKALAK**

OPTICALJA

AMARA - ATOTXA - CENTRO

Hernani, 21 · Tel. 943 434 806
Avda. de Madrid, 11 · Tel. 943 444 381
Plza. Teresa de Calcuta, 7 · Tel. 943 297 509

DONOSTIA

contacto@opticaliadososti.com

Sustapensk 2024/09/08tik 2024/11/30era arte balio du. Bi betaurrekek Vistasoft lente monofokalak edo progresiboak izango dituzte, graduazio eta tratamendu berekoak. Betele betaurreko gresienak kobratuko dira. Lehenko betaurrekoak aukeratu optikan eskuragarri dagoen erdozen merketo edozein armazoi. Bigarren betaurrekoak, doan: Pull&Bear, Trend eta Kocmo markak. Sustapen honen xede diren osasun-produktuek bat datoz lege-eruekin.